

IKTUSAREN PROZESUAREN FASEAK

Mugarri nagusiak eta erabaki kliniko partekatuenak



ICTUSnet Europako proiektuaren esparruan egindako material informatiboa
Interreg Sudoe programak Eskualde Garapeneko Europako Funtzaren bidez finantzaturako proiektua

ICTUSnetek Europako hegoaldeko hainbat lurralderen arteko lankidetzaren sarea sortzea du helburu. Iktusarekin erlazionaturako zenbait alorretako pazienteek eta profesionalak osatzen dute. Aldi berean, proiektuaren asmoa datuen analisirako teknologia berritzaileak txertatuko dituzten azpiegiturak sortzea da, iktusaren arreta integraturako sistemak hobetzeko eta biztanleengan gaixotasunaren eragina txikitzeko.

1 Fasea

112- LARRIALDIAK ETA IKTUS UNITATEA


Kaltetutako pertsonarengan sintomak hasten direnetik, iktusa jasaten ari dela atzeman behar da, eta, **berrehala, hasierako orduetan, iktusa tratatzeko prestatuta dagoen ospitale batera eraman.**

Hasierako ebaluazioak barne hartzen ditu artatze neurologikoa, garuneko eskanerra, odola ateratzea eta presio arterialaren eta bihotz-erritmoaren monitorizazioa.

Tratamendurako erabakiak oso azkar hartu behar dira. Oinarrizkoa da pazientearekin edo bere senidearekin komunikazioa ezartzea erabaki horien berri emateko eta partekatuenak izateko.

Iktusa sufritu duten pertsonen gehiengoa **Nafarroako Ospitaleguneko Iktus Unitatera eramaten dute lehenengo 24-72 orduetan.** Bertan, Neurologia Zerbitzuak eta bere Iktus Unitateak ebaluatzen eta kontrolatzen dituzte gaixoak. Noizbehinka, okerrera egiten badute edo zailtasunak sortzen badira, pazienteak Zaintza Intentsiboen Unitatera (ZIU) eraman behar dituzte edo larrialdiko kirurgia egin behar diete.

IKTUS KODEA
Denbora mendeko duen larrialdia



+ informazio gehiago

Zer da iktusa?

Gure garunera iristen den odolaren zirkulazioaren bat-bateko alterazioa da.

Zergatik gertatzen da?

Odolbildu batek arteria bat buxatzen duelako eta odola burmuineko atal batera iragatea ekiditen duelako (iktus iskemikoa), edo burmuineko arteria edo zain bat hausten delako, garunean hemorragia bat eraginez (iktus hemorragikoa).

2 Fasea

NEUROLOGIA SOLAIRUAN OSPITALERATZEA ETA OSPITALEKO ALTA

Lehenengo astean, pazienteak **Neurologia Zerbitzuko ospitale-solairura** pasatzen da. Bertan egonkortzen da, normalean, eta izan dituen galerez kontzienteago da. Inpaktu emozional handia gertatzen da, kudeatzen lagundu beharrekoa.

Fase honetan konplikazioak gerta daitezke, iktusetik edo beste patologia batzuetatik eratorriak. Horrek ospitaleratzea luza dezake edo garapena okertu.

Miaketak egiten dira **iktusaren kausa eta burmuineko kaltearen larritasuna diagnostikatzeko.** Garrantzitsua da ulertzea zer eta zergatik gertatu den, eta zein arrisku dagoen berriz gertatzeko.

Neuroerrehabilitazio Zerbitzuak pazienteak ebaluatuko du tratamendua programatzeko eta fisioterapia edota logopedia saioei hasierako egunetan ekiteko.

Posible den aldiro, eta pazientearen beharren arabera, talde sanitarioek, pazienteek edota senideek **erabaki partekatua** hartuko dute: alde batetik, **ospitaleratzea beste ospitale batean jarraitzeko**, eta bertan iragateko susperraldia eta errehabilitazioa; edo, bestalde, **alta emateko**, dela etxera, dela beste baliabide soziosanitario batera, errehabilitazioa modu ambulatorioan segitzeko. Fase honetan, Gizarte Zerbitzuak orientazioa errazten die familiei.

2 - 15 egun



3 Fasea

NEUROERREHABILITAZIOA ETA NEUROLOGIA AZTERKETA

Iktusaren ondorioak eta egunerokoan sortzen diren mugaketak agerikoak egiten dira. Ohikoa da etsipenezko gogo-aldarte agertzea, suminkortasuna, umore aldaketak, etb., baina **hobekuntza gehien gertatzen diren fasea ere bada.**

Tratamenduen helburua iktus berri bat ekiditea edo sintomak arintzea da. **Sendagai berriak** daude alta ematean, eta garrantzitsua da horietara atxikitzea eta albo-ondorioez informazioa jasotzea.

Iktus berri bat jasateko aukera murrizteko, **bizi estilo osasuntsu bat** eramatea eta **arriku baskularreko faktoreak kontrolatzea** (hipertentsioa, diabetesa, kolesterolak) dira gakoak. **Osasun Etxeak** laguntza soziosanitarioa eta jarraipena eskaini ditzake egoera berri honetan, Neurologia Zerbitzuarekin elkarlanean.

Neuroerrehabilitazio Zerbitzua **diziplina anitzeko tratamendu neuroerrehabilitatzailea** jarraitzeaz arduratzen da, kasu bakoitzean atzemandako beharren arabera. Oinarrizkoa da **pazienteak jokoera aktiboa eta kolaboratzailea izatea, eta helburuak adostea.**

Hiru hilabetera, Neurologia Zerbitzuko Iktus Unitateak pazienteak deituko du kontsultara bere **garapena ebaluatzeko, zalantzak argitzeko eta tratamendua aztertzeko.**

3 hilabete



4 Fasea

EGONKORTZEA, MANTENUA ETA KRONIZITATEA

Iktusa jasan duen pertsonak tratamendu neuroerrehabilitatzailearekin jarraitzen du. Normalean, **garapen gutxiago ikusten dira. Zerbitzu horren alta jaso beharreko unea** iritsiko da, eta modu partekatuan egingen da pazientearekin edota senidearekin, hasieran adostutako helburuen arabera.

Pazienteari dagokion Osasun Etxea eta arreta soziosanitarioko zerbitzua prozesuaren arduradun nagusiak bihurtzen dira. Sendagaiak hartzen jarraitzea, arrisku faktoreen kontrola eta bizi estilo osasuntsu bat funtsezkoak dira beste iktus bat ekiditeko.

Gelditzen diren **albo-kalteekin bizitzen ikasi beharreko errealitatea** inposatzen da, baina horiek hobetzeko eta mugaketak ahalik eta gehien murrizteko lanean etsi gabe. Zentzu horretan, Ubarmin Klinikak eta Nafarroako Garuneko Lesioaren Elkartek (ADACEN) paper garrantzitsua dute. Laguntza taldeak eskaintzen dituzte, eta, horietan, pazienteek eta familiek, euren esperientzia partekatu eta elkarrengandik ikas dezakete. Gainera, ADACENek lorpenak mantentzeko terapia neuroerrehabilitatzaileak egiten ditu.

Normalean, **pazientea zaintzen duen pertsonaren beharrak** garrantzia hartzen hasten dira. Osasun Etxeko Gizarte Zerbitzuak baliabideen informazioa eta laguntza eman diezaioke.

3 hilabete - urte 1



Iktusaren Munduko Eguna

Urriak 29
Iktusaren aurka ekin
#IktusarenMundukoEguna



Interesezko estekak

www.ictusfederacion.es
www.adacen.org

Bideoa: Juntos en el ictus

Ezagutu gehiago erabaki kliniko partekatuen inguruan.

